

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko udal-informazioa

BERDINTASUNAREN BIDEAN AURRERA
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO



LG NA 30-2022



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala

Laguntzailea:

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Zer da emakumeen kontrako Indarkeria?

Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen arabera, emakumeen kontrako indarkeria da emakumea iza-teagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportzio-rik gabeko eragina duena, genero-diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurraraz-teak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.

Gure gizartean gertatzen den **funtsezko giza eskubideen urratze** ohi-koenetako bat da.

Zein dira emakumeen kontrako indarkeriazko jokabideak?

- Ele txarrak, irainak, irrigarri uztea, apalkuntzak eta laidoak.
- Axolagabekeria eta mespretxua.
- Familia, lagun eta ingurukoengandik isolaraztea.
- Objektu pertsonalak eta balio sentimental handikoak suntsitzea.
- Ikastea edo lan egitea galaraztea.
- Jarrera jeloskorrak eta kontrola (sakelakoa, WhatsApp-a, posta elektronikoa eta abar).
- Seme-alaben aurrean balioa kentzea eta mehatxatzea.
- Indarkeriazko ingurunean bizi diren umeek jasaten dituzten ondorio negatiboak.
- Dirua kontrolatzea eta kentzea (pentsioak ez ordaintzea, adibidez).
- Eraso fisikoak.
- Sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpena (sexu-izaerako proposamenak edo derrigor-tzeak borondatearen kontra).
- Genero-ziberjazarpena, sextinga (sexu-edukiko irudiak bidaltzea adostasunik gabe) eta sextortsioa (biktimari estortsioa egitea sexu-izaerako asmoekin).
- Feminizidioak (emakumeen hilketa edo homizidioa genero-diskriminazioagatik).
- Oinarrizko premiak kentzea: jatekoa, atsedena, aisialdia.
- Sexu- edo lan-esplotazioa.
- Ezkontza itunduak edo gogoz kontrakoak.
- Emakumeen eta nesken salerosketa.
- Emakumeen mutilazio genitala.

Informazioa nahi baduzu eta/edo arreta behar baduzu halako egoerak pairatzen ari zarelako edo pairatzen ari delako laguntza behar duen inor ezagutzen duzulako, deitu edo jarri harremanetan hauekin:

- **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langilea, abokatua eta psikologoa.** Hitzordua hartu behar da alde aurretik: 948 199 870.
- **Osasun-etxeetako gizarte-langilea:** 948 198 330 / 948 287 540.

365 egunetan, 24 orduetan:

- **Barañáingo Udaltzaingoa:** 948 181 000 / 626 181 000
- **Larrialdietako telefonoa:** 112
- **016 telefono-zenbakia**

Halaber, udal-zerbitzu hauek dituzu eskura:

AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA

Norentzat?

Banantze-prozesu traumatiko baten edo familia-gatazken ondorioz egoera larrian egoteagatik zerbitzu juridiko espezifiko behar dutenentzat da, emakumeen kontrako indarkeriatzat hartzen den egoeraren bat pairatu duten edo ari diren **emakumeentzat bereziki**.

Zer eskaintzen du?

Informazioa eta aholkularitza zuzenbidearen edozein arlotan (zuzenbide zibila, ezkontza-eta familia-zuzenbidea, oinordetza-, zigor- eta lan-zuzenbidea, batik bat), baita jarraitu beharreko auzibide edo prozeduraren inguruan ere.

Non dago?

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan, astean behin, 09:00etatik 15:00etara, hitzordua alde aurretik eskatuta.

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUA

Norentzat?

Banantze-prozesu traumatiko baten edo familia-gatazken ondorioz egoera larrian egoteagatik laguntza psikologiko espezifiko behar dutenentzat da, emakumeen kontrako indarkeriatzat hartzen den egoeraren bat pairatu duten edo ari diren **emakumeentzat bereziki**.

Zer eskaintzen du?

Banakako aholkularitza psikologikoa.

Non dago?

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan, astean behin, 08:00etatik 14:00etara, hitzordua alde aurretik eskatuta.



SI QUIERES INFORMARTE Y/O NECESITAS ATENCIÓN:

- Trabajadora social, abogada y psicóloga del Servicio Social de Base. 948 199 870.
- Trabajadora social de los Centros de Salud 948 198 330 / 948 287 540.

Te atenderán también los 365 días, las 24 horas, en:

- Policía Municipal de Barañáin: 948 181 000 / 626 181 000
- Teléfono de emergencias 112
- Teléfono 016

INFORMAZIOA NAHI EDO ARRETA BEHAR BADUZU:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langilea, abokatua eta psikologoa. 948 199 870.
- Osasun-etxeetako gizarte-langilea: 948 198 330 / 948 287 540.

365 egunetan, 24 orduetan:

- Barañaingo Udaltzaingoa: 948 181 000 / 626 181 000
- Larrialdietako telefonoa: 112
- 016 telefono-zenbakia

IF YOU WANT MORE INFORMATION AND/OR NEED HELP:

- Social worker, lawyer and psychologist at Basic Social Services. 948 199 870.
- Social worker at a Health Centre 948 198 330 / 948 287 540.

You can also seek help 24 hours a day, 365 days of the year on:

- Barañáin Municipal Police: 948 181 000 / 626 181 000
- Emergency services telephone line: 112
- The 016 telephone line

SI VOUS SOUHAITEZ VOUS INFORMER ET/OU AVEZ BESOIN D'AIDE :

- Assistante sociale, avocate et psychologue du Service Social de Base. 948 199 870.
- Assistante sociale des Centres de Santé 948 198 330 / 948 287 540.

Vous pouvez également contacter 365 jours/an, 24/24h, les services suivants :

- Police municipale de Barañáin : 948 181 000 / 626 181 000
- Numéro d'urgence : 112
- Numéro : 016

DACĂ DOREȘTI SĂ TE INFORMEZI ȘI/SAU AI NEVOIE DE AJUTOR:

- Lucrătoarea socială, avocata și psihologa din cadrul Serviciului Social de Bază (Servicio Social de Base). Înainte trebuie să vă faceți programare la telefonul 948 199 870.
- Lucrătoarea socială din cadrul Centrului sanitar, telefon: 948 198 330 / 948 287 540.

Vă stau la dispoziție, de asemenea, 365 de zile pe an, 24 ore pe zi:

- Poliția Municipală din Barañáin: 948 181 000 / 626 181 000
- Teléfono de emergencias 112
- Teléfono 016

إذا كنت ترغب بالحصول على معلومات و / أو تحتاج إلى خدمات

أخصائي اجتماعي ومحامي وعالم نفس في الخدمة
الاجتماعية الأساسية على الهاتف ٩٤٨١٩٩٨٧٠
الأخصائية الاجتماعية بالمراكز الصحية
٩٤٨٢٨٧٥٤٠ / ٩٤٨١٩٨٣٠

ستحصل على الاستشارة أيضًا ٣٦٥ يومًا ، ٢٤ ساعة في
اليوم ، على الهواتف التالية :

شرطة بلدية بارانينين : ٦٣٦١٨١٠٠٠ / ٩٤٨١٨١٠٠٠

رقم هاتف الطوارئ ١١٢

هاتف ٠١٦



BERDINTASUNAREN BIDEAN AURRERA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

Laguntzailea:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AVANZANDO EN IGUALDAD PARA ELIMINAR LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

Colabora:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



PROMOUVOIR L'ÉGALITÉ POUR ERADICHER LA VIOLENCE CONTRE LES FEMMES



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

Avec la participation de :

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



ADVANCING IN EQUALITY TO ELIMINATE VIOLENCE AGAINST WOMEN



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

With the collaboration of:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



تعزیز المساواة للقضاء على العنف والاعتداء على المرأة

التعاون مع



Gobierno
de Navarra



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala



AVANȘÂND PE CALEA ELIMINĂRII VIOLENȚEI ASUPRA FEMEILOR



Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

Colaborează:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

